

UDALAK 2011ko UZTAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregui and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

José Pérez Dominguez jn.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Maria Otaegi Velez and.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2011ko uztailaren 26ean ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

KONTU-HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:

Pello Odriozola Zubizarreta jn

1.- AKTAK ONARTZEA : 2011-06-11, 2011-06-17 ETA 2011-07-04.-

Estefanía Morcillo: Hamazazpiko akta begiratzeko denborarik ez dugu izan, gaur jarri duzuela uste dugu, hor abstenitu egin nahi dugu eta bestea onartuko genuke.

Luis Intxauspe: Arazorik ez badago onartu dezakegu ekainaren hamaikakoa eta hamazazpikoa utzi hurrengorako. Uztailaren laukoa mozio bat zen eta aho batez onartu genuen, orduan hori onartua gelditzen da.

2011ko ekainaren 11ean eta 2011ko uztailaren 4ean egindako bileren akta onartu da.

2.- 2011KO EKAINAREN 15ETIK 2011KO UZTAILAREN 21ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011eko ekainaren 15etik 2011ko uztailaren 21era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI FINKA BATEN LAGAPENA EGITEA, HERNANIKO BHI (ITURRIAGA INSTITUTUA) HANDITZEKO ETA HERNANIKO UDALERRIAN BIGARREN HEZKUNTZAREN ANTOLAKETA BERRIA EZARTZEKO. - Udalak 2011ko otsailaren 24an egindako osoko Bilkuran erabaki zuen Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin hitzarmen bat izenpetzea, Hernaniko BHI handitzeko eta Hernaniko Udalerrian bigarren hezkuntzaren antolaketa berria ezartzeko.

Hitzarmen horren arabera, Udal honek konpromiso hau hartu zuen, besteak beste: Eusko Jaurlaritzari Hernaniko BHI handitzeko beharrezkoa den lurraren doako lagapena egitea eta horretarako egin beharreko atze-aurre guztiak egitea.

Egin dira egin beharreko izapideak. Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.2.l artikulua eta 47.2.n artikulua ezartzen dutena kontuan hartuta, Osoko bilkurak, udalbatza osatzen duten legezko udalbatzako kideen gehiengo absolutuz, honako hau

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehen.- 2011ko ekainaren 2an Hernaniko Udalaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren artean izenpetutako hitzarmenaren lehenengo baldintzan hartutako konpromisoa betetzea eta, ondorioz, administrazio horri behean deskribatuta datorren finkaren lagapena egitea, Hernaniko BHI handitzeko lanak gauzatzeko. Hauxe da:

“HIRI-LURRA.-Tellerigaina izeneko lekuan dagoen lur saila, Santa Barbara auzoan, Hernaniko mendebaldeko zatian. Azalera: sei mila eta hirurogeita hamar metro karratu (6.070,00 m²). Mugak: iparraldean, jatorrizko finkaren gainerako zatia, Hernaniko Udalarena eta, zati batean, Santa Barbarara doan errepidea; hegoaldean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioarena den finka. Finka horretan Agustin Iturriaga institutua dago, gaur egun Hernani BHI, eta zati batean, jatorrizko finkaren gainerakoa; ekialdean, jatorrizko finkaren gainerako zatia; mendebaldean, Santa Barbarara doan bide publikoa eta, zati batean, Aizeder Ederren jabetzak, Garmendia Aizpuru jaunarenak.

Titulua:- bananketakoa, Hernaniko Udal idazkariorde Pello Odriozolak bi mila eta hamaikako martxoaren 29an egindako ziurtagirian jasota datorren moduan.

Donostiako 5. Jabetza Erregistroan inskribatua.- Artxiboko 2.463. Tomoa, Hernaniko 598. Liburua, 152. Folioa, 27.466. zenbakidun Finka.

Katastroko erreferentzia: 6042122.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari erabaki hau bete ahal izateko beharrezkoak diren agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzeko eta formalizatzeko ahalmena ematea.

Luis Intxauspe: Hirugarren, laugarren eta bosgarren puntuetan, puntu hauek tratatzen hasi baino lehen azalpen bat uste dut eman behar dugula: guk Bildu osatzen dugunok berriak izanik ez ditugu

ezagutzen behar bezala prozedura administratiboak, azaldu izan dizkigute, gure arteko konfusio bat izan da, aipatu izan dugu batzordeak irailean martxan jarriko genituela eta horrek arazo batzuk sortzen ditu, Plenora gaiak ekartzea diktaminatu gabe. Horregatik hiru puntu hauek eta zortzigarrena diktaminatu gabe datoz Pleno honetara. Esan bezala ez da borondate txarrarekin egindako kontu bat, ezjakintasuna edo gauzak garbi ez edukitzea da, gure asmoa ez da horrela funtzionatzea, gure asmoa batzordeak martxan jartzea da. Puntu hauek aurreko legegintzalditik datozen kontuak dira, ziu-rrenik zuek gu baino hobeto ezagutzen dituzuenak; urgentzia hirigintzako teknikoak arrazoitu duen bezala, subjektiboa izan daiteke, baloratzeko kontua da, baina urgentzia da prozedura azkartzeko.

Andoni Amonarraig: Urgentzien inguruko txosten teknikoak alderatuta zuk emandako adierazpenak nahiago nituen, puntu hauek ez direla urgenteak uste bait dut, orain eman duzun esplikazioa dira, zuzena iruditzen zaidana. Ekainean egin zen eraketa bilkura, hamazazpian batzordeak eratu ziren, pertsonak izendatzea falta zen soilik, pertsonak izendatzera iritsi izan bagina hau batzordetik pasako zen eta ohiko osoko bilkurara iritsi, iritsi behar zuten moduan. Pelikula hau tekniko batek eginiko jantziekin jantzen dugu, udal idazkariak egin ez duena, funtsean udal idazkariak uste dut balioztatu edo fede eman behar duela urgentzia izaeraren inguruan.

4.- SANDRA GALLARDO TORRESEK OSOKO BILKURAK 2011KO MAIATZAREN 9AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA JARRITAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA EZESTEIA.- Udalbatzak 2010eko abenduaren 21ean egindako bileran udalaren hiru etxebizitzetarako maizterrak onartzeko eta aukeratzeko oinarrien plegua onartu zuen.

Eskaerak onartzeko eta aztertzeko epea ireki ondoren, udalbatzak 2011ko maiatzaren 9an egindako bileran behin betiko onartu zuen aukeraketa prozesu horretan onartu eta baztertutakoen zerrenda. Prozesu horretatik kanpo geratutako eskaera bat Gallardo andrearen bizikidetzaren unitateak osatutakoa izan zen.

Gallardo andreari erabakia jakinarazi zitzaizolarik, berak 2011ko ekainaren 20an haren kontrako berraztertze errekurtsoa jarri zuen.

Onartutako Oinarrien Pleguan jasotakoaren arabera, maizterrek hainbat baldintza bete behar zituzten, eta horien artean 2.b. artikulua dion hau:

“b) Egoitza

Elkarbizitza unitatearen pertsona batek, gutxienez, Hernanin egon behar du erroldaturik, bai eta eskaera baino lehenagoko bi urteotan bertan bizi ere, etengabe eta era eraginkorrean, edo bost urtez, etengabe ere bai, azken hamar urteotan, edo udalerrian lan egin azken hamar urteotan.”

Biztanleen errolda kontsultatuta ikusi zen Gallardo andrearen bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide bakar batek ere ez zuela betetzen egoitzaren baldintza hori, eta, beraz, artikulua horretan lanari dagokionez jartzen duena justifikatzeko dokumentazioa aurkez zezala eskatu zitzaion. Errekerimendu hori 2011ko martxoaren 14an egin zitzaion (2011-03-25ean jaso) eta hamar eguneko epea eman zitzaion eskaera zuzentzeko. Epea bukatu arren Gallardo andreak ez zuen horri buruzko ezer aurkeztu.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Sandra Gallardo Torres andreak osoko bilkurak 2011ko martxoaren 9an hartutako erabakiaren kontra jarritako berraztertze errekurtsoa ezestea. Erabaki horren bidez bere bizikidetzaren unitatea hiru udal etxebizitzetarako maizterrak aukeratzeko prozesutik kanpo geratu zen, bizikidetzaren unitate horretako kide bakar batek ere ez zuelako betetzen udal honek hiru udal etxebizitzetarako maizterrak onartzeko eta aukeratzeko oinarrien 2.b) artikuluan ezarritako baldintza.

5.- HIRU UDAL ETXEBIZITZA ALOKAIUAN ESLEITZEKO EGITEKOA DEN ZOZKETAREN ONDORIOZKO ZERRENDA ONARTZEKO AHALMENA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ESKU UZTEA. Udalbatzak 2010eko abenduaren 21ean egindako bileran udalaren hiru etxebizitzetarako maizterrak onartzeko eta aukeratzeko oinarrien plegua onartu zuen.

Eskaerak onartzeko eta aztertze epea ireki ondoren, udalbatzak, 2011ko maiatzaren 9an egindako bileran behin betiko onartu zuen aukeraketa prozesu horretan onartu eta baztertutakoen zerrenda.

Onartutako oinarrien pleguan jasota dagoenaren arabera, zozketa egin behar da orain, eta zozketa horretatik aterako dira hiru esleipendunak eta erreserben bi zerrenda, kupo bakoitzerako bana.

Pleguak ezartzen du, bestalde, zerrenda horiek, esleipendunenak eta erreserbenak, udalbatzako osoko bilkurak onartu behar dituela. Txosten honen bidez proposatzen dena da zozketaren ondoriozko zerrendak onartzeko ekitaldia Tokiko Gobernu Batzarraren esku utz dadila, gauzak azkartze aldera.

Proposatutako eskuordetzeak betetzen ditu azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13. artikuluan eskatzen diren baldintzak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea). Ez da ahaztu behar eskuordetzea GAOn argitaratu beharra dagoela eta Tokiko Gobernu Batzarrak erabakia hartzen duenean erabaki hori delegazioz hartua dagoela jaso beharko dela.

Horiek horrela, osoko bilkurari hau erabaki dezala proposatzen zaio:

Udalbatzak 2010eko abenduaren 21ean egindako bileran udalaren hiru etxebizitzetarako maizterrak onartzeko eta aukeratzeko oinarrien plegua onartu zuen.

Eskaerak onartzeko eta aztertze epea ireki ondoren, udalbatzak, 2011ko maiatzaren 9an egindako bileran behin betiko onartu zuen aukeraketa prozesu horretan onartu eta baztertutakoen zerrenda.

Onartutako Oinarrien Pleguan jasotakoarekin bat etorritz, errekursoak jartzeko epea bukatu delarik zozketa egin beharra dago. Zozketaren emaitza berriz ere osoko bilkurak onartuko du formalki.

Horiek horrela, gauzak azkartze aldera, osoko bilkurak honako hau

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 9 (BILDU.)

* Kontrako botoak: 7 (3 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIALISTAK, 1 H1!).

* Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea laster egitekoa den zozketaren ondoriozko zerrendak onartzeko ekitaldia eta zerrenda horien kudeaketa, esleipendunena eta baita erreserbenak.

2.- Erabaki hau GAOn argitaratzea.

6.- "OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA. – Aztertu da Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak 2011ko uztailaren 7an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Estatutuen 6. artikulua aldatzea.

6 artikulua.

“ Zuzendaritza batzordeak bere gain hartuko ditu Gizarte Ongintzarako Patronatuaren gobernua eta kudeaketa. Udal Pleno Batzarreak izendatu beharko du hori, eta 8 batzordekidez osatuko da, zeintzuk honela banatuko diren:

Botua emateko eskubidea dutenak:

- Zazpi zinegotzi, udalbatzaren ordezkari gisa, proportzioa osoko bilkuraren erabaki bidez espresuki zehaztuko delarik.

- Gizarte Zerbitzuen esparruarekin zerikusi duen Hernaniko herritar bat.

Botua emateko eskubiderik ez dutenak:

Kudeatzailea
Idazkaria “

2.- Hernaniko Udalaren osoko bilkurari igortzea Estatutuen 6. artikulua aldaketaren proposamena.

7.- GIZARTE ZERBITZUEN ALORRAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HERRITARREK ZUZENDARITZA BATZORDEAN IZANGO DUTEN MAHAIKIDEA IZENDATZEA. – Patronatuaren estatuetak 6. artikuluan ezarrita dagoela gizarte zerbitzuen alorrean diharduten lau hernaniar Zuzendaritza batzordeko kide izendatzea, botoa emateko eskubide eta guztiz.

Ikusirik Jubilatuen Etxeak Txaro Etxarri Aguirre proposatu duela Zuzendaritza batzordeko kide izateko.

Lehendakariak proposaturik eta estatuetak 10. artikuluan arautzen denarekin bat.

Aztertu da Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak 2011ko uztailaren 7an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Hernaniko Udalaren osoko bilkurari igortzea Txaro Etxarri Aguirre and. gizarte alorrean diharduten herritarrek botoa emateko eskubidez Patronatuko Zuzendaritza batzordean izango duten ordezkaria izendatzeko proposamena.

8.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN PROZEDURA ETETEARI ETA BERRIZ HASTEARI BURUZ ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK BERRESTEA.

DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamaikako ekainaren hogeian.

2011ko ekainaren 1ean egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak hartutako erabakiaren bidez, Hernaniko Udaleko hainbat eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena arautzen duten Administrazio-Oinarri Partikularren Plegua eta Baldintza Teknikoen Pleguak onartzea, eta esleipen prozedura arrunterako deialdia egitea adostu zen.

Deialdi hori 2011ko ekainaren 2an bidali zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera eta bertan argitaratu zen ekainaren 4an, baita Estatuko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan ere ekainaren 8an.

Ondare eta Kontratazio Teknikariaren ekainaren 20ko txostena ikusita.

Kontratua arautuko duten klausulak jendaurrean egon diren epean, akatsak ikusi dira baldintza Teknikoen Pleguan, eta esleipen irizpidetan argiketaren bat egin behar dela eta, horiek zuzentzeko, eta apirilaren 2ko Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluko k) atalean xedatutakoa kontuan hartuta,

ERABAKI DUT:

1.- 2011ko ekainaren 1ean egindako osoko bilkuran, Hernaniko Udaleko hainbat eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena emateko ireki zen lizitazio prozedura etetea, kontratua arautzen duten Pleguetan egin beharreko aldaketak egin arte.

2.- Udal Osoko Bilkurari, hurrengo udaltzarrean honako akordioa berretsi dezala eskatzea.

DEKRETUA.- Hernanin, bi mila hamaikako ekainaren hogeita zapian

Kirol zuzendaria den J.A.Saez-en 2011ko ekainaren 21eko txostena ikusi da,

Kontratazio-teknikariaren ekainaren 11ko txostena ikusi da,

Alkatetzaren bi mila eta hamaikako ekainaren hogeiko DkkONTR-AL20110622 zenbakia duen dekretuaren bidez, 2011ko ekainaren 1ean egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak hartutako erabakiaren bidez, *Hernaniko Udaleko hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua* esleitzeko deitu zen lizitazioa eten da, kontratua arautuko duten administrazio-klausulen agiriak zuzendu arte,

Pleguak zuzendu ondoren, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 21. artikuluko k) atalean xedatutakoa kontuan hartuta,

Plenoan jakinarazi egin beharko da eta berretsi beharko du

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

1.- Hernaniko Udaleko hainbat eraikinen garbiketa-zerbitzua esleitzeko lanak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedienteak onartzea.

2.- Kontratazioa burutzeko gastua onartzea zeina lizitazioaren gehieneko prezioa urtean 1.212.923,00 €/urtean (%18 BEZ barne) izango den.

3.- Kontratazio hori arautuko duten administrazio-baldintza partikularren plegua eta baldintza

teknikoen plegua onartzea.

4.- Esleipena egiteko prozedura irekia berrabiaraztea, eta prozedura etenda egondako epeak ez dezala kontatu eskaintzak aurkezteko jasotako epean.

5.- Udal Osoko Bilkurari, hurrengo udalbatzarrean honako akordioa berretsi dezala eskatzea.

Horiek horrela, berrestea erabaki da aho batez.

9.- KONTRATAZIO-MAHAIAREN ERATZEA ETA KIDEEEN IZENDAPENA.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

DEKRETUA.- Hernanin, bi mila eta hamaikako uztailaren batean.

Ikusita Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak 21. artikuluan ezarritakoa.

Eman zaizkidan ahalmenak erabiliz:

ERABAKI DUT:

Lehena.- Ebazpen hau sinatzen denetik, eta Kontratatazio Organua Alkatea, edo eta bere kasuan delegazioz Tokiko Gobernu Batzarra denean, Kontratazio Mahaiaren osaera hau izango da:

Presidentea: Luis Intxauspe Arozamena edo eskuordetzen duen pertsona.

Lehen mahaikidea: Asier San Emeterio Otegui edo eskuordetzen duen pertsona.

2. mahaikidea: Andoni Amonarraiz Gomez edo eskuordetzen duen pertsona.

3. mahaikidea: Udal kontuhartzailea edo eskuordetzen duen pertsona.

4. mahaikidea: Udal Idazkaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Kontratazio sailean atxikitako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Besteak: Kasu bakoitzean gaien arabera beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie, ahotsa izango dute baina ez boturik bere jardueran.

Bigarrena.- Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri ematea Kontratatazailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK. – No se formulan.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:10 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.